BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PRENTSA OHARRA
2016/01/11

# Bizkaiko Batzar Nagusiek eskaerea egin deutsie Aldundiari, Artxanda zeharkatzen dauen errepidean trafikoa astirotzeko hobekuntzak "aztertu daizan"

Bizkaiko Batzar Nagusiek 2016ko lehenengo lan saioa egin dabe gaur. Ekonomi eta Lurralde Garapeneko Batzordeak EAJ-PNV eta PSE-EE taldeen zuzenketa-eske transakzionala onartu dau gaur. Zuzenketa-eske horren bitartez eskaerea egiten jako Aldundiari, sei hilebeteko epean, Artxanda, Enekuri eta Santo Domingo lotzen dituan BI-3741 errepidean "egoeraren barri eta egin beharreko hobekuntzak jasoko dituan azterlana" egin daian.

Batzordearen eguneko gai zerrendan arauz besteko proposamen bi jaso dira, bat PP taldeak aurkeztutakoa, eta bestea EH Bildurena. Proposamenek, inguruko biztanleek osatutako Artxanda Plataformaren errebindikazinoak jaso ditue. Plataformako kideek batzarretako taldeakaz egindako hainbat bileretan jakinarazo dabenez, inguru horretan ibilgailuak "oso arin" ibilten dira. Eskarien artean borobilgune bi eregitea eta oinezkoentzako altxatutako hainbat igarobide eta espaloiak egokitzea dagoz.

Bizkaiko Batzarretan onartu dan jeltzaleen eta sozialisten zuzenketa-eskeak datozan hilebeteetan jarraitu beharreko lan egiteko ildoa planteetan dau. Irene Edesa batzordekide jeltzaleak adierazo dauenez, bertan, "ezaugarriak, trafikoa eta inguruko errepidearen eta lurraren erabilerak" aztertu beharko dira, inguruko bide segurtasuna hobetuko daben soluzino teknikoak diseinau ahal izateko, ibilgailuentzako igaroteko abiadura egokia eta erabiltzaile ahulenentzako, txirrindularientzako eta oinezkoentzako, babesa bermatuz.

Holan, jeltzaleen eta sozialisten eretxiz, bide arloko soluzinoa Bilboko eta Sondikako urigintza planen barruan egon beharko da, eta azterlanak, kostuak, eta aitatutako errepideak hartzen dituan udalerri bi horreekaz koordinauta gauzatu beharko dan inbertsino plana zehaztu beharko ditu.

Batzarretako talde guztiak aurretiazko azterlana egitearen alde agertu dira. Jesús Isasik (PP) adierazo dauenez, helburua, aisiarako leku bat zeharkatzen dauen errepidea "atseginago" bilakatzea da. Ganera, ez da ahaztu behar gidari askok Enekuritik edo Santo Domingo Ganetik zirkuletan dabela "iges egiteko bide moduan, trafiko pilaketak dagozanean".

EH Bilduk uste dauenez, jarduketea "preminazkoa" da, eta azterlana "lehenengo pausua da errepidearen hobekuntzea Aldundiaren 2017ko aurrekontuetan sartu ahal izateko.

Proposamena baloretan sartu barik, Podemos Bizkaiak kritikau egin ditu gai hori Batzar Nagusietan sartzeko aukeratu diran "formak", Herritarren Eskarien batzordea erabili ez izana kritikauz. Batzorde hori agintaldi honetan sortu da Bizkaiko Batzarretan, araudi barriagaz bat etorrita. Aitatutako batzordea erabili eitekean auzokideen plataformak euren proposamenak zuzenean azaltzeko, une eta saio bakarrean, Batzarretako talde guztien aurrean.

## TXIRRINDULARITZAKO BIDEEI BURUZKO "APP"-A

Batzordeak, PP taldeak aurkeztutako arauz besteko beste proposamen bat be onartu dau, Aldundiari eskaria egiteko Bizkaiko Lurralde Historikoko txirrindularientzako ibilpideak eta bidegorriak jasoko dituan "app"-a egin daian, denpora gitxi barru Google Earth aplikazinoa desagertu egingo dalako. Talde guztiak neurri horren alde agertu dira, abstenidu egin dan Podemos Bizkaia izan ezik.

Kontxi Claver batzordekide jeltzaleak adierazo dauenez, Ekonomi eta Lurralde Garapeneko Saila, une honetan, 2005ean egin zan Aldundiaren webgunearen "bizikletaz ibilteko sarearen bistaratzailean" Google plataforma bidez eskintzen dan informazino hori erakutsiko dauen aplikazino "hedagarria" eta "eskalagarria" egiteko beharretan ari da. Claverrek esan dauenez, Lantikek urte honetako "lehenengo hilebeteetan" aktibauko dau aplikazino barria, eta ordenagailuetan, tabletetan eta telefono mobikor adimendunetan funtzionauko dau. Dagozan ibilpideak erakusteaz gain, aplikazinoak, Bizkaian dagozan "bizikletentzako aparkalekuei, intermodaltasunari, leku interesgarriei, parkeei edo aisiarako lekuei" buruzko informazinoa be emongo dau, beste gauza batzuen artean.

EH Bilduk eskaria egin dau, eguneratze hori Aldundiaren baliabideak erabiliz egin daiten, Lantik foru soziedadearen bitartez, eta "software" librea erabilita, gitxiago gastetako. Horrez gain, publizidadea emoteko eskaria be egin dau, bizikletaren erabilerea sustatzeko. Podemos Bizkaia izan da PP taldearen ekimenaren alde agertu ez dan bakarra, bere eretxiz merkaduan txirrindularientzako ibilpideei buruzko "behar beste informazino" dagoalako, erakunde publikoek eta pribaduek emondakoa. "Gai garrantzitsuagoak dagoz", esan dau Neskutz Rodríguezek, eta, ganera, aplikazino horreen eukien kalidadea zalantzazkoa dala be esan dau.

## TIKETAK EMOTEA ORDAINDU BEHARREKO ERREPIDEETAN

Bukatzeko, batzordeak PP taldearen beste ekimen bat onartu dau, Aldundiari eskaerea egiteko, AP-8 autopistan eta Artxandako tuneletan ordaindu izana justifiketan dauen tiketa emon daiten "erabiltzaileek beren beregi eskatu behar barik". EAJ-PNV eta PSE taldeak ekimenaren alde agertu dira, EH Bildu abstenidu egin da eta Podemos Bizkaiak kontrako botoa emon dau.

Jesús Isasik (PP) adierazo dauenez, danok dakigu kasu batzuetan autopistako tiketak ez dirala emoten, eta bere ekimena justifiketako orduan, esan dau “oharra” izan gura dauela, ordain lekuetako beharginek errepide horreetako erabileraren ordainagiriak “ofizioz” emon daiezan.

Proposamenaren alde agertu arren, EAJ-PNV eta PSE-EE taldeek guzurtau egin dabe PP-ko bozeroaleak esandakoa. “Oso noizbehinka” gertau diran gauzak dira, araudiak behartu egiten ditualako ordaindu beharreko errepide horreetako beharginak, ordainketaren ordainagiria emon daiezan. “Tributu arloko eginbeharra da”, eta Interbiak-eko baldintzen pleguetan dago jasota, erantzun dau María Presa jeltzaleak. Plegu horreetan jasoten danez, “beti” emon behar dira ordainagiriak.

Alexia Castelo sozialistak, bere aldetik, “salbuespenak egon daitekezala” onartu dauen arren, “arau orokorra existidu egiten dala” esan dau. Isasiri eskaria egin deutso, herritarrak nahasten ibili ez daiten, kasu hori, Bizkaiko Foru Aldundiak ostalaritzan tiketak emotea sustatzera bideratutako kanpainaren parean jarriz.

Neskutz Rodríguez Podemos Bizkaia taldeko bozeroaleak, popularren proposamenaren kontra zergatik agertu diran azaldu dau, talde horren eretxiz “2015eko urritik” autopistako beharginek tiketa emoteko beharra daukielako. “Ez daukagu pertzepzino hori”. Tiketa “eskini edo emon egiten deuskue”, gehitu dau EH Bilduko Zigor Isuskizak.

NOTA DE PRENSA
11/01/2016

# Las Juntas Generales de Bizkaia instan a la Diputación a "estudiar" mejoras para un "calmado" de tráfico en la carretera que atraviesa Artxanda

Las Juntas Generales de Bizkaia han celebrado hoy su primera sesión parlamentaria de 2016. En ella, la Comisión de Desarrollo Económico y Territorial ha aprobado una enmienda transaccional de PNV y PSE-EE, que insta a la Diputación a realizar, en el plazo de seis meses, "un estudio sobre el estado de situación y mejoras a realizar" en la carretera BI-3741 que comunica, por Artxanda, Enekuri y Santo Domingo.

En el orden del día de la comisión, se incluían dos proposiciones no de norma, una del PP y otra de EH Bildu, que venían a recoger las reivindicaciones de la Plataforma Artxanda, formada por vecinos de la zona, quienes han informado en distintas reuniones ante los grupos junteros que la velocidad a la que circulan los vehículos por la zona es "muy alta". En sus peticiones, se incluyen las de construir dos rotondas, y habilitar varios pasos de cebra elevados y aceras.

La enmienda de jeltzales y socialistas acordada en el parlamento vizcaíno plantea una línea de trabajo a seguir para los próximos meses donde se deberán analizar, según la apoderada jeltzale Irene Edesa,"las características, el tráfico, los usos de la carretera y del suelo del entorno", con el propósito de diseñar soluciones técnicas que mejoren la seguridad vial de la zona, garantizando una velocidad de paso adecuada para los vehículos y la protección de los usuarios más débiles como son los ciclistas y peatones.

En este sentido, jeltzales y socialistas creen que la solución viaria deberá encajar en los planes urbanísticos de Bilbao y Sondika, y el estudio deberá determinar los costes y un plan de inversiones a realizar en coordinación con estos dos municipios por los que discurre la mencionada carretera.

Todos los grupos junteros se han mostrado conformes a realizar el estudio previo. Se trata de hacer "más amable" , según Jesús Isasi (PP), una carretera que atraviesa un lugar de esparcimiento y que, a su vez, es utilizada por muchos conductores que circulan por Enekuri o el Alto de Santo Domingo "como vía de escape en caso de atascos".

EH Bildu cree que la actuación es "urgente" y el estudio significa un "primer paso" para incluir la mejora del vial en los presupuestos forales de 2017.

Sin entrar a valorar la propuesta, Podemos Bizkaia ha criticado "las formas" elegidas para introducir este asunto en las Juntas Generales, criticando el que no se haya utilizado la comisión de Peticiones de la Ciudadanía, creada en esta legislatura en el

parlamento vizcaíno de acuerdo al nuevo reglamento, para que la plataforma vecinal pudiera explicar sus propuestas directamente y en una sola vez a los grupos de la Cámara.

## "APP" SOBRE VÍAS CICLISTAS

Asimismo, la comisión ha acordado una proposición no de norma del PP que insta a la Diputación a la elaboración de una "app" con las rutas ciclistas y bidegorris del Territorio Histórico de Bizkaia, ante la futura desaparición de la aplicación Google Earth. Todos los grupos han apoyado la medida a excepción de Podemos Bizkaia que se ha abstenido.

La juntera jeltzale Kontxi Claver ha revelado que el departamento de Desarrollo Económico y Territorial está trabajando ya en una aplicación "ampliable" y "escalable" que mostrará esta información que ahora se ofrece en el "visualizador de red ciclable" de la web foral –creado en 2005-, mediante la plataforma de Google. Según Claver, Lantik activará la nueva aplicación "en los primeros meses" de este año y la misma funcionará en ordenadores, tablets y teléfonos móviles inteligentes. Además de las rutas existentes, la aplicación mostrará información sobre "aparcamientos para bicicletas, intermodalidad, lugares de interés, parques o áreas recreativas" de Bizkaia, entre otras cosas.

EH Bildu ha pedido que esta actualización se produzca con medios propios a través de la sociedad foral Lantik y bajo "software" libre con el fin de reducir costes, y que se publicite para fomentar el uso de la bicicleta. Podemos Bizkaia ha sido el único grupo que no ha apoyado la iniciativa del PP porque creen que existe en el mercado "suficiente información" sobre rutas para ciclistas, tanto provenientes de entidades públicas como privadas. "Hay temas más importantes", ha sostenido Neskutz Rodríguez, quien ha puesto en entredicho, además, la calidad de los contenidos de estas aplicaciones.

## ENTREGA DE TICKETS EN VIALES DE PEAJE

Por último, la comisión ha aprobado otra iniciativa del PP para instar a la Diputación a adoptar las medidas oportunas para que se entregue el ticket justificante del pago de la autopista AP-8 y los Túneles de Artxanda "sin necesidad de que medie petición expresa por parte de los usuarios". La iniciativa ha contado con el apoyo de PNV y PSE, la abstención de EH Bildu, y la negativa de Podemos Bizkaia.

Jesús Isasi (PP) ha señalado que hay constancia de que existen casos en donde los tickets de autopista no se entregan, y ha justificado su iniciativa como un "toque de atención" para que los recibos de uso de estos viales sean entregados "de oficio" por los trabajadores de las cabinas de peaje.

Pese a apoyar la propuesta, PNV y PSE-EE han negado este aspecto. Son hechos “puntuales” ya que la normativa obliga a los operarios de estos viales a entregar el correspondiente justificante de pago. “Es una obligación tributaria” que está recogida en los pliegos de condiciones de Interbiak, le ha respondido la jeltzale María Presa, en donde se recoge que “siempre” se deben emitir estos recibos.

Por su parte, la socialista Alexia Castelo ha admitido que puede haber “excepciones, pero la regla general existe”. Ha pedido a Isasi que no intente confundir a la ciudadanía al comparar este caso con la campaña de la Hacienda foral vizcaína destinada a fomentar la entrega de tickets en la hostelería.

La portavoz de Podemos Neskutz Rodríguez ha justificado su rechazo a la propuesta popular por entender que “desde octubre de 2015” los empleados de estos viales de pago tienen la obligación de entregar el recibo. “No tenemos esa percepción”. El ticket, “o nos lo ofrecen, o nos lo dan”, ha añadido Zigor Isuskiza, de EH Bildu.